

Barrualdea, jauntxoen bizitoki oparoa

GETXO. Itsasaldetik urrun, Areetan, Algortan eta Negurin topa leitekez burgesiaren jauregiak. Auzo apalagoa da Andra Mari. Udalerriko, beste alde batetik, XIX. Artisautza Azokea ospatzen dabilz



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Andra Mari elizearen inguruan sortu zan Getxo. Otoitz gunek dauko udalerriko armarrria.

Iban Ocio | **GETXO**

Ibiladiak Getxo atzean laga dau. Joan dan domekan udalerriko bazterrak harrotu zituen euskaltzale piloak. Eguraldiak be ez eban zapuztu Bizkaiko ikastolen jai arrakastatsua. Egunotan, bada, Getxo zale mordoaren alkargune da osteria be. Barikuan hasi eta gaur iluntzerarte XIX. Artisautza Azokaz gozatu leiteke ingurutan. Euskal Herriko eta kanpoko sortzaileen egitekoa miazteko aukera parebakoa daukie bisitariek. Ganera, barrualdean pasiaran jarduteko baliatu leikie txangoa. Getxoko auzorik ezezagunena da Andra Mari, baina itsasaldetik urrundutako Neguri, Algorta eta Areetako zokoak be bai. Eraikuntza sekulakoak dagoz horreetan.

Artisautza azoka Geltoki Plazan

Urterik urte asmo handiagoko azokea gertaten dabe Getxon. Aurton 2.500 metro koadroko lur saila hartuko dau Euskal Herriko artisautza erakusketa garrantzitsuenak. Areetako Geltoki Plazan altzau dabe karpak erraldoia. Gaurko 21:00ak arte askotariko produktuak ikusi eta eros leitekez horretan: beira, zura, keramika, larrua, harria eta metala oinarri daukien arte-lanak, besteak beste. Getxon, era berean, zuzeneko erakustaldiak egingo ditue Euskal Herriko eta kanpotik ailegautako ehun artisauek. Holan, betiko eskulagintza teknikak zeintzuk diran aztertuko dabe bisitariek. Gauean itxiko daben XIX. Artisautza Azokeak ondo aseko ditu zaleak. Izan be, karpan

hara eta hona jardun ostean, bertoko produktuak dastatu gura dituenentzako gunea egin dabe. Geltoki Plaza ondoko Ibaiondo kalean ipini dabe txoko gastronomikoa.

Artisautza azokatik haruntzago, Areetan eraikuntza polit asko dago ikusgai, eliza eta jaurretzeak batez be. Horreek miazteko txangoari ekingo deusagu Santa Ana ermitan. Uri barruko otoitz gunea eregi eben 1864an, Agirre familiaren aginduz. Handik gertu hasten da Areetako saltoki gehien pilotzen dituen etorbidea. Hori zeharkatu eta Andres Larrazabal kalera ailegauko gara, Las Mercedes elizara. Gerra zibilean sute batek kiskali eban egoitzea, auzotarrek, baina, laster lehengoratu eben. Egun, herrialdeko organurik handiena



NON ZER

GETXO

Biztanleak: 84.000 Inguru

Euskaldunak: %30

Zelan ailegau

Bilbotik Areetara arteko autopistea hartu leiteke. Metroa be Getxora ailegaten da. Udalerriko auzo ia denetan egiten dau geldialdea.

Aholkuak

Uri barruko ibilbidea betetzeko zapata arinak eroan.

Jateko

Aitor Jatetxea (944304086); Igeretxe Jatetxea (944645593); Fadura Erredegia (944305948); Jolastoki Jatetxea (944912031).

Ondarea

Areetara: Santa Ana ermitea; Las Mercedes eliza; Txurruka Bake-

Algorta, padura eta jauregiak

Areetatik kanpo, Bolueko hezegunean barrura abiatu geinke. Horra joateko Rosales jauregi ondoko Makalen etorbidea jorratuko dogu lehen lehenik. Gero, Lexarreta kalea eta Larrañazuri ikastetxea atzean laga. Boluen naturgune ederra dago; animaliak, landareak eta arbolak, orotarikoak. Paduratik gertu, ganera, lehenagoko baserriak eta Rotaetxeiko Santa Columa ermitea ageri dira. Otoitz gunea bitxia eregiteko zura eta harria baliatu zituen, erdi eta erdi.

Algortako etxe handiak ikusteko irrikan dagozanak, barriz, Santa Klara jauregia hartu leikie helduleku. Pare-parean azaltzen da Getxoko Udaletxea—Berangoko harrobietako harria erabili eben eraikuntza osatzeko—. Udaletxe aurrean Loiolaiko San Inazioaren eliza dago. Basagoiti etorbidean aurrera egin ezkerro, Bariko San Nikolas eliza eta plazea.

Andra Mari, Getxoren sorburu

Denboraren iraganak Bizkaiko dirudunen gotorleku bihurtu dau Getxoko barrualdea. Halandabe, auzorik berantiarrenak dira horreek, XIX. gizaldi hondarrean sortutakoak. Ordura arte Andra Marin biltzen zan jenterik gehien. Erdi Aroko getxotarrek auzoari izena emon eutson XII. mendeko elizea eben topagune—

uriko nekazal gunea oparoenak berton egozan: gari landak eta sagartiak batez be—. Dana dala, gaur egun auzoan miatu leitekeen otoitz gunea XVIII. gizaldikoa da. Eliza zaharbarritu eta aurreko eraikineko horma pare bat laga zituen bakar-barrik. Andra Marin, beste alde batetik, sasoi bateko baserri guztien izenak dagoz idatzia. Getxoko armarrria be elizan kokatu eben. Bitxia da hori. Otsa agertzen da eltze biri eutsiz, atzean pinuak dituela. Lema be berezi samarra dauka: «Caltea duguianac bizarra lepoan». Elizea eta, oro har, Andra Mariko auzoak, sasoi bateko Getxoren iragana oroitzen dabe.

Andra Mari, Neguri, Algorta, Areetara... auzootan barrura osteratxo politak egin leitekez urteko edozein egunetan. Domeka honetan, barriz, artisautza azokeaz be gozatu leiteke Getxon.



Eder, Eguzki Alde eta Eguren jauregiak. Areetan: Santa Klara jauregia; Getxoko Udaletxea; Bolueko hezegunea. Andra Mari: Andra Mariko eliza

gordeten dabe bertan. Merezi dau ha patxadaz miaztea.

Elizatik urten eta Zugazarte pasealekuak eroango gaitu Areetara eta Neguriko jauntxoen etxe ondora. Ibiltoki alboan dago Txurruka eta Bake-Eder jauregiak—lorategi ederrek inguratzen ditue horreek biak—. Zugazarten aurrerago, San Jose landatar etxea topau leiteke. Eguzki Alde, Eguren eta Santa Barbara egoitza ikaragarritzokak, Algortarako bidean. Neguri parean, amaitzeko, Rosales jauregira hurreratu leiteke. Getxon lur esparrurik handiena hartzen dauen egoitza da hori, inguruotako familien ahalmen ekonomikoaren erakusle.